

ENPRESEN EGOERA

Salmentak, kanpo
merkataritza, enplegua eta
soldatak

HILEKO TXOSTENA

> 2021eko apirila

**Gipuzkoako
Foru Aldundia**
Ogasun eta Finantza
Departamentua



**Diputación Foral
de Gipuzkoa**
Departamento de
Hacienda y Finanzas

AURKEZPENA

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuak estatistikako azterlanak prestatu ohi ditu Gipuzkoako enpresen salmentei, kanpo merkataritzari, enpleguari eta soldatei buruz, Gipuzkoako enpresen eta ekonomiaren bilakaerari buruzko informazio eguneratua eskuratze aldera.

Informazio hau oso tresna interesgarria da departamentuaren eta Foru Aldundiaren jarduketa bideratzeko, eta, interes orokorrekoa denez, Gipuzkoako gizartearen esku jartzen da argitalpen honen bidez.

Argitalpen honetako informazioa lortzeko, erabili dira **Gipuzkoan sozietate egoitza** duten **enpresa EZ finantzarioek** hilero aurkezten dituzten **aitorpenak**: Balio Erantsiaren gaineko Zerga eta lanaren, jarduera ekonomikoen eta sarien etekinen atxikipenak eta konturako sarrerak.

Normalean, informazio hau hilero argitaratzen da; dena den, uztaila eta abuztuko datuen analisisa batera egiten da; izan ere, uztaileko aitorpen-likidazioa aurkezteko epea, udara dela-eta, hilabete luzatzen da, irailaren 25eraino.

Eranskinaren hasieran dagoen oharrean aipatzen den bezala, metatutako epealdietako (hiruhilekoak, urtekoak...) bariazioak kalkulatzekoan populazio konstantearen irizpidea erabili ordez, batez besteko ponderatuaren irizpidea erabiltzen da.


EZAUGARRI NAGUSIAK

- 2021eko lehen lauhilekoan Gipuzkoako enpresen salmentak %14,3 igo dira, 2020ko lehen lauhilekoaren aldean. Esportazioen hazkundea %18,2koa izan da, eta barruko salmentena pixka bat txikiagoa (+%12,3). Errebote positibo hori iazko martxoko eta apirileko beherakada handiaren ondorio da, alarma egoeraren adierazpenaren, ondorengo konfinamenduaren eta ekonomian funtsezkoak ez ziren jarduera guztiak gelditzearenak.
- Horregatik, eta testuinguru horretan, agian egokiagoa da aldaketa tasak ikustea epealdi homogeneousagoekin alderatuta, hala nola 2019ko lehen lauhilekoarekin alderatuta. Kasu horretan, salmenta osoak %1,3 baino ez dira jaitsi, eta antzeko portaera izan dute barruko salmentek (-%1,4) eta esportazioek (-%1,2). Hau da, 2021eko lehen lauhilekoan, non lehen hilabeteetan mugikortasuna murrizpenak izan ziren (urte amaierako jaien ondoren pandemia areagotu egin zelako), garai normal baten antzeko salmenta maila erakusten du.
- Lan-merkatuan, 2021eko apirilean, lan etekinen jasotzaileen kopurua %3,5 igo da urte arteko terminoetan, nahiz eta urteko metatuan %1,4ko jaitsiera izan. Apirilean, ordaindutako soldatak %12,4 igo dira 2020ko hil beraren aldean, eta urteko metatuan igoera +%2,8koa da. Emaiza horiek, salmentek bezala, aurreko urteko murrizketa nabarmenaren eta ERTEen eraginaren eraginean daude.

1. taula - GIPUZKOAKO ENPRESEN ADIERAZLE NAGUSIAK (Urte arteko bariazio tasak)

Adierazlea	Δ% Apirila 2019/2021	Δ% Urtarrila –Apirila 2019/2021	Δ% Apirila 2020/2021	Δ% Urtarrila-Apirila 2020/2021
Salmenta osoak	-1,5	-1,3	46,1	14,3
Barruko salmentak	0,1	-1,4	41,0	12,3
Esportazioak	-4,5	-1,2	57,0	18,2
Inportazioak	2,8	-3,9	40,8	11,6
Enplegua	-1,9	-1,1	3,5	-1,4
Soldatak	2,7	2,4	12,4	2,8

1. grafikoa - SALMENTAK (urte arteko bariazio tasak – 3 hilabeteetako batez besteko mugikorra)



SEKTOREEN ARABERAKO SALMENTAK

- 2021eko lehen lauhilekoan salmentak igo egin dira industrian (+%18,3) eta zerbitzuetan (+%11,6), baina jaitsi egin dira eraikuntzaren sektorean (-%3,6)

Estatistika ondorio hutsagatik, 2021a 2020ko apirila bezalako epealdi batekin alderatuta, non sektore jakin batzuk itxita zeuden, salmentek gora egin dute. Horrela, hileko alderaketan, apirilean industriaren hazkundeak %55,9koa izan da, eraikuntzan %17,4koa eta zerbitzuetan %38,4koa.


Lau hileko terminoetan, susperraldi intentsitate desberdinak ikusten dira: industriako salmentak %18,3 igo dira eta zerbitzu sektorekoak %11,6; eraikuntzan, aldiz, salmentak %3,6 jaitsi dira (batez ere aurtengo urtarrilean eta otsailean izandako jaitsiera handien ondorioz).

Lehen esan bezala, alderaketa homogeenagoa eginez gero (adibidez, 2019ko aldi berarekin alderatuta), salmenta osoak %1,3 baino ez dira jaitsi. Industrian, bariazioa -%1,4koa da; eraikuntzan, -%24,6koa; zerbitzuen sektorean, berriz, salmenta osoak %2,4 hazi dira 2021eko lehen lauhilekoan, 2019ko aldi beraren aldean.

2 taula - SEKTOREEN ARABERAKO SALMENTA OSOAK (urte arteko bariazio tasak)

Adierazlea	Δ% Apirila	Δ% Urtarrila-Apirila
Salmenta osoak	46,1	14,3
▪ Industria	55,9	18,3
▪ Eraikuntza	17,4	-3,6
▪ Zerbitzuak	38,4	11,6

2 grafikoa – SEKTOREEN ARABERAKO SALMENTA OSOAK
(urte arteko bariazio tasak – 3 hilabeteetako batez besteko mugikorra)



ESPORTAZIOAK ETA INPORTAZIOAK

➤ Gipuzkoako enpresen esportazioak %18,2 igo dira 2021eko lehen lauhilekoan

Osasun-krisiak eragina izan du produktuen eta zerbitzuen trukean mundu osoan. Pandemiaren lehen hilabeteetan, jardura ekonomikoaren zati handi bat eten zen herrialde askotan, eta horrek aldaketak eragin zituen mundu osoko hornikuntza eta ekoizpen kateetan. Aldi honetako konparazioetan eragina du alderaketak 2020ko epearekin direla, non martxoaren bigarren hamabostalditik aurrera gelditu egin ziren ekonomian funtsezkoak ez diren jardura guztiak. Hori dela eta, 2021eko apirilean Gipuzkoako enpresen esportazioak %57,0 hazi dira, eta lehenengo lauhilekoan +%18,2. Inportazioak, berriz, %40,8 igo dira hilabete honetan, eta %11,6 urteko metatutan. 2019ko aldi berarekin alderatzen badugu, ikusiko dugu esportazioek %1,2 egin dutela behera, eta inportazioek %3,9.

Bestalde, 2021eko urtarrileko datuetatik aurrera lehen aldiz erakusten da esportazioen/inportazioen egituraren Brexitaren ondorioz izandako aldaketa. Erresuma Batua EBtik ateratzeak esan nahi du BEZaren aplikazio lurraldearen eta Erresuma Batuaren artean egindako eragiketak ez direla Europar Batasunari egindako entrega/eskuratze gisa kalifikatzen, eta EBtik kanpoko gainerako herrialdeetarako esportazio/inportazio gisa kalifikatzen direla. Neurri batean, horren ondorioz, urteko lehen lau hilabeteetan, EBra egindako esportazioak %6,0 hazi dira, eta gainerako herrialdeetara egindakoak, berriz, %39,8. Inportazioetan, eta erosketen horien jatorria aztertuta, EBtik egindakoak %7,8 igo dira, eta EBtik kanpotik egindakoak, berriz, %23,8.

3. taula – ESPORTAZIOAK ETA INPORTAZIOAK (urte arteko bariazio tasak)

Adierazlea	Δ% Apirila	Δ% Urtarrila-Apirila
Esportazioak	57,0	18,2
▪ Europar Batasuna	48,3	6,0
▪ Munduko gainerako herrialdeak	70,7	39,8
Inportazioak	40,8	11,6
▪ Europar Batasuna	39,4	7,8
▪ Munduko gainerako herrialdeak	45,0	23,8

3. grafikoa - ESPORTAZIOAK ETA INPORTAZIOAK

(urte arteko bariazio tasak – 3 hilabeteetako batez besteko mugikorra)



SEKTOREEN ARABERAKO ENPLEGUA

- 2021eko lehenengo lau hilabeteetan %1,4 jaitsi da Gipuzkoako enpresetan lan egiten duten pertsona kopurua

2021eko lehen lauhilekoan, Gipuzkoako enpresetan lan egiten duten pertsona kopurua %1,4 jaitsi da. Apirilean +%3,5 hazi den arren, aurreko 3 hilabeteetako galerek aldakuntza negatibo hori eragin du. Datuak sektoreka aztertuz gero, ikusten da zerbitzuen sektorean (+%0,7) bakarrik igo dela kopurua; izan ere, industrian %3,0 jaitsi da eta eraikuntzan %2,9.


2020ko martxoan eta apirilean bizi izandako egoera kontuan hartuta, datuak 2019ko lehen lauhileko homogeneoago batekin alderatuz gero, %1,1eko beherakada ikus daiteke enplegatutako pertsonen kopuruan.

Horri dagokionez, kontuan hartu behar da erabilitako adierazlea soldatapeko enpleguaren hurbilketa bat dela, eta lan etekinak jasotzen dituzten pertsonen kontzeptuarekin bat datorrela (edozein hilabete epean enpresatik gutxienez soldata bat jaso duten pertsonen kopurua, zenbatekoa edozein dela ere). Bestalde, gaur egungo testuinguruan, litekeena da langile bat ERTE egoeran egotea eta bere soldataren zati bat bere enpresatik kobratzea; beraz, enpresako langileztat hartzen da. Bi baldintza horien ondorioz, ziurrenik, datu horiek ez dute behar bezala jasotzen krisi horrek enpleguan izan duen eragina.

4. taula – SEKTOREEN ARABERAKO ENPLEGUA (urte arteko bariazio tasak)

Adierazlea	Δ% Apirila	Δ% Urtarrila-Apirila
Enplegu osoa	3,5	-1,4
▪ Industria	-1,2	-3,0
▪ Eraikuntza	1,6	-2,9
▪ Zerbitzuak	10,1	0,7

4. grafikoa - SEKTOREEN ARABERAKO ENPLEGUA
(urte arteko bariazio tasak – 3 hilabeteetako batez besteko mugikorra)



SEKTOREEN ARABERAKO SOLDATAK

- 2021eko lehen lauhilekoan, Gipuzkoako enpresek ordaindutako soldatak %2,8 igo dira, aurreko urteko aldi beraren aldean

Gipuzkoako enpresek 2021eko lehen lauhilekoan guztira ordaindutako soldatak %2,8 igo dira, aurreko urteko aldi beraren aldean. Apirileko aldaketa hain positiboa (+%12,4) aurreko urteko hilabete berean izandako jaitsiera handiari zor zaio (-%9,1). Sektoreen arabera banaketan, eta lehen lauhileko honetako metatutan, soldatek gora egin dute sektore guztietan: industrian (+%2,1), eraikuntzan (+%0,4) eta zerbitzuen sektorean (+%4,3).

Gainera, 2019ko lehen lauhilekoarekin alderatuta ere, Gipuzkoako enpresek ordaindutako soldatak +% 2,4 igo direla ikus daiteke.


2021eko lehen lauhilekoan, enpleguak behera egin du (-%1,4), eta soldatak, berriz, +%2,8 igo dira; beraz, langile bakoitzeko batez besteko ordainsariak %4,2 egin du gora. Industrian enplegua %3,0 jaitsi da eta soldatak %2,1 hazi dira; beraz, batez besteko ordainsaria %5,1 igo da. Eraikuntzan ere enplegua jaitsi egin da (-%2,9) eta soldatak (+%0,4) igo, eta, beraz, batez besteko ordainsaria %3,3 igo da. Zerbitzuen sektorean, enpleguak +%0,7 egin du gora, eta soldatak, berriz, gehiago igo dira (+%4,3); beraz, batez besteko ordainsariak %3,6 egin du gora.

5. taula – SEKTOREEN ARABERAKO SOLDATAK (urte arteko bariazio tasak)

Adierazlea	Δ% Apirila	Δ% Urtarrila-Apirila
Soldata osoak	12,4	2,8
▪ Industria	9,3	2,1
▪ Eraikuntza	5,8	0,4
▪ Zerbitzuak	19,1	4,3

5. grafikoa – SEKTOREEN ARABERAKO SOLDATAK

(urte arteko bariazio tasak – 3 hilabeteetako batez besteko mugikorra)



GIPUZKOAKO ENPRESEN SALMENTAK, KANPO MERKATARITZA, ENPLEGUA ETA SOLDATAK

Estatistiken eranskina

Oharra.

Eranskin honetan hileroko bariazio tasak ematerakoan populazio konstantearen irizpidea erabili da. Hau da, bariazio tasa kalkulatu da bi urtez jarraian hilabete berean aitortzen duten enpresekin. Populazio konstantearen arabera bariazio tasa horiek sektoreen koiuntura erakusten dute, eta bariazio demografikoek ez diete eragin. Populazio konstantea definitzen den moduari esker, ez da beharrezkoa erregistratu gabeko datuak egoztea.

Aldiz, hiruhileko, urteko eta epealdi metatuei dagozkion bariazioak kalkulatzeko batez besteko ponderatuak erabili dira.

1 taula - SALMENTA OSOAK: BARRUKO SALMENTAK ETA ESORTAZIOAK

Epealdia	Salmenta osoak	Barruko salmentak	Esportazioak
2006	7,1	6,6	8,4
2007	7,1	6,1	10,0
2008	0,0	-1,5	4,6
2009	-20,5	-20,2	-21,6
2010	2,1	-4,6	21,6
2011	0,5	-5,0	12,8
2012	-5,1	-8,0	0,4
2013	-3,6	-5,4	-0,5
2014	3,3	3,3	3,2
2015	4,9	3,0	8,2
2016	0,4	1,7	-1,8
2017	7,5	9,5	4,1
2018	6,6	5,8	8,0
2019	2,8	2,5	3,4
2020	-10,1	-9,1	-11,9
2020 (1)	-13,7	-11,9	-16,9
2021 (1)	14,3	12,3	18,2
2019 I	4,3	2,2	8,6
II	4,4	2,0	8,8
III	2,8	1,7	4,8
IV	0,3	4,0	-6,0
2020 I	-7,1	-6,0	-9,0
II	-23,1	-20,5	-27,8
III	-9,6	-7,5	-13,7
IV	-1,2	-2,9	2,0
2021 I	6,4	4,9	9,3
2020 urtarrila	-9,9	-6,0	-17,3
otsaila	-1,6	0,2	-5,2
martxoa	-9,4	-11,9	-4,7
apirila	-32,9	-29,4	-39,5
maiatza	-25,3	-22,5	-30,4
ekaina	-11,5	-9,8	-14,5
uztaila	-9,1	-5,8	-15,5
abuztua	-10,6	-9,4	-13,0
iraila	-9,5	-8,0	-12,3
urria	-12,0	-10,7	-14,3
azaroa	-2,0	-1,0	-3,7
abendua	9,2	2,2	24,5
2021 urtarrila	-5,2	-6,3	-2,7
otsaila	3,6	0,3	10,0
martxoa	20,3	21,3	18,6
apirila	46,1	41,0	57,0

(1) Erreferentziako hilera arte metatutako datuak

Urtearteko bariazio tasak

2. taula - PRODUKZIO SEKTOREEN ARABERAKO SALMENTAK

Epealdia	Guztira	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak
2006	7,1	13,1	7,7	-1,6
2007	7,1	7,5	11,8	5,6
2008	0,0	1,8	10,5	-4,8
2009	-20,5	-25,1	-11,1	-14,8
2010	2,1	6,0	-21,8	2,1
2011	0,5	3,5	-21,6	0,3
2012	-5,1	-5,1	-25,3	-1,2
2013	-3,6	-4,1	-17,4	-0,4
2014	3,3	3,4	0,9	3,4
2015	4,9	5,4	-7,5	6,3
2016	0,4	-0,7	-5,4	2,9
2017	7,5	6,3	5,1	9,6
2018	6,6	6,5	0,7	7,4
2019	2,8	2,6	-2,0	4,0
2020	-10,1	-12,9	-14,7	-5,5
2020 (1)	-13,7	-17,0	-19,9	-8,0
2021 (1)	14,3	18,3	-3,6	11,6
2019 I	4,3	6,3	-6,2	3,3
II	4,4	5,3	19,0	1,2
III	2,8	2,1	-3,7	4,8
IV	0,3	-2,5	-11,8	6,4
2020 I	-7,1	-10,5	-14,6	-1,1
II	-23,1	-27,2	-19,8	-17,8
III	-9,6	-13,8	-11,4	-4,0
IV	-1,2	-1,2	-12,7	0,4
2021 I	6,4	9,3	-10,1	4,9
2020 urtarrila	-9,9	-17,2	-24,2	3,1
otsaila	-1,6	-4,7	4,5	1,7
martxoa	-9,4	-9,3	-21,1	-7,6
apirila	-32,9	-36,3	-33,7	-28,1
maiatza	-25,3	-29,9	-16,7	-20,2
ekaina	-11,5	-16,0	-8,5	-5,5
uztaila	-9,1	-13,4	-2,3	-4,4
abuztua	-10,6	-15,0	8,6	-8,5
iraila	-9,5	-13,4	-31,3	0,5
urria	-12,0	-16,1	-8,5	-6,4
azaroa	-2,0	-4,1	-4,9	1,4
abendua	9,2	16,7	-20,7	5,0
2021 urtarrila	-5,2	-2,6	-26,3	-5,9
otsaila	3,6	7,0	-11,1	1,1
martxoa	20,3	21,9	4,3	20,2
apirila	46,1	55,9	17,4	38,4

(1) Erreferentziako hilera arte metatutako datuak

Urtearteko bariazio tasak ehunekotan

3. taula – ESPORTAZIO ETA INPORTAZIOAK INGURUNE GEOGRAFIKOEN ARABERA

Epealdia	Esportazioak			Inportazioak		
	Guztira	EB	BESTEAK	Guztira	EB	BESTEAK
2006	8,4	6,3	11,7	11,9	10,4	17,4
2007	10,0	13,3	5,3	12,3	10,7	18,1
2008	4,6	4,2	5,3	0,0	-1,6	5,3
2009	-21,6	-27,1	-13,2	-37,4	-35,8	-42,2
2010	21,6	12,7	32,7	28,4	32,1	16,0
2011	12,8	20,3	4,8	11,0	12,5	5,3
2012	0,4	3,2	-3,1	-8,7	-8,6	-9,2
2013	-0,5	-1,5	0,7	-1,0	-1,2	-0,5
2014	3,2	10,1	-5,4	1,2	0,5	3,7
2015	8,2	6,0	11,4	11,3	10,3	15,5
2016	-1,8	5,7	-12,2	-5,6	-4,7	-8,5
2017	4,1	-2,6	15,1	14,0	13,0	17,7
2018	8,0	17,4	-5,3	10,5	8,4	18,6
2019	3,4	4,5	1,4	3,0	1,2	9,6
2020	-11,9	-12,9	-10,1	-13,5	-14,8	-9,2
2020 (1)	-16,9	-18,9	-12,9	-14,2	-15,7	-9,2
2021 (1)	18,2	6,0	39,8	11,6	7,8	23,8
2019 I	8,6	12,8	1,6	11,1	8,5	21,7
II	8,8	11,9	3,7	1,3	0,8	2,9
III	4,8	5,2	4,3	1,5	-1,5	11,6
IV	-6,0	-7,8	-2,7	-1,3	-3,0	4,7
2020 I	-9,0	-9,6	-7,9	-10,2	-11,3	-6,1
II	-27,8	-26,3	-30,5	-27,2	-29,4	-19,8
III	-13,7	-12,8	-15,2	-14,1	-14,7	-12,2
IV	2,0	-3,1	10,4	-2,1	-3,3	2,1
2021 I	9,3	-3,2	32,0	4,2	0,2	17,9
2020 urtarila	-17,3	-16,6	-18,7	-9,1	-9,7	-7,2
otsaila	-5,2	-7,1	-1,7	-6,9	-9,9	4,4
martxoa	-4,7	-4,9	-4,4	-14,4	-14,1	-15,4
apirila	-39,5	-45,0	-28,3	-27,3	-29,8	-18,8
maiatza	-30,4	-31,7	-28,2	-33,4	-37,3	-20,3
ekaina	-14,5	-1,7	-34,3	-20,5	-20,6	-20,2
uztaila	-15,5	-10,1	-24,0	-16,9	-16,6	-17,8
abuztua	-13,0	-18,3	-3,9	-17,9	-20,7	-8,8
iraila	-12,3	-11,7	-13,6	-8,7	-8,5	-9,3
urria	-14,3	-12,8	-17,0	-10,0	-8,2	-16,1
azaroa	-3,7	-10,7	10,6	-2,1	0,0	-8,6
abendua	24,5	16,7	34,8	6,5	-1,4	35,9
2021 urtarila	-2,7	-13,4	20,2	-9,9	-10,2	-8,9
otsaila	10,0	-0,5	27,6	-0,8	-4,2	10,2
martxoa	18,6	3,4	44,6	24,0	14,5	61,7
apirila	57,0	48,3	70,7	40,8	39,4	45,0

(1) Erreferentziako hilera arte metatutako datuak

Urtearteko bariazio tasak ehunekotan

4. taula- PRODUKZIO SEKTOREEN ARABERAKO ENPLEGUA

Epealdia	Guztira	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak
2006	-0,2	-1,1	3,7	1,6
2007	1,8	0,9	5,3	3,7
2008	0,2	-1,1	0,2	4,2
2009	-6,1	-7,1	-1,1	-4,8
2010	-2,8	-3,0	-9,7	-0,6
2011	-0,7	-0,3	-11,6	0,5
2012	-3,1	-3,0	-11,2	-2,0
2013	-2,9	-3,3	-9,2	-1,0
2014	-0,7	-2,3	-4,1	2,9
2015	2,1	1,6	-5,6	3,5
2016	2,8	1,7	-7,9	5,5
2017	2,6	2,6	-3,6	3,1
2018	3,6	3,0	3,1	4,5
2019	2,2	2,0	1,2	2,6
2020	-2,2	-2,0	-4,6	-2,3
2020 (1)	0,2	1,3	-4,4	-0,9
2021 (1)	-1,4	-3,0	-2,9	0,7
2019 I	2,3	1,8	4,1	2,8
II	2,2	1,8	-0,2	2,8
III	2,8	2,6	0,9	3,1
IV	1,7	1,7	-0,1	1,8
2020 I	2,2	2,0	-4,0	2,8
II	-5,0	-2,7	-4,0	-8,0
III	-3,9	-4,1	-4,6	-3,5
IV	-2,0	-2,9	-6,0	-0,6
2021 I	-3,0	-3,6	-4,3	-2,1
2020 urtarila	2,8	2,6	-0,5	3,2
otsaila	1,9	1,8	-7,6	2,8
martxoa	1,9	1,6	-3,7	2,5
apirila	-5,6	-0,7	-5,6	-11,6
maiatza	-4,9	-3,0	-1,2	-7,5
ekaina	-4,5	-4,2	-5,1	-4,8
uztaila	-3,8	-3,8	-4,1	-3,9
abuztua	-4,1	-4,4	-5,6	-3,7
iraila	-3,6	-4,3	-4,1	-2,8
urria	-2,5	-3,2	-6,9	-1,4
azaroa	-1,4	-2,0	-5,8	-0,3
abendua	-2,1	-3,6	-5,3	-0,1
2021 urtarila	-3,1	-3,9	-5,6	-2,0
otsaila	-3,2	-3,5	-3,8	-2,6
martxoa	-2,6	-3,3	-3,6	-1,7
apirila	3,5	-1,2	1,6	10,1

(1) Erreferentziako hilera arte metatutako datuak

Urtearteko bariazio tasak ehunekotan

5. taula – PRODUKZIO SEKTOREEN ARABERAKO SOLDATAK

Epealdia	Guztira	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak
2006	4,1	2,8	7,8	7,7
2007	5,9	5,2	10,0	6,9
2008	5,1	3,5	5,0	10,7
2009	-5,3	-6,8	1,0	-2,9
2010	-1,3	-0,8	-9,4	-0,2
2011	2,5	4,0	-11,5	1,8
2012	-2,4	-2,1	-12,7	-0,9
2013	-1,5	-1,2	-9,4	-0,7
2014	-0,1	-0,5	-4,2	1,6
2015	2,1	2,0	-3,3	3,1
2016	2,5	1,9	-8,8	5,2
2017	4,1	4,2	-5,1	4,6
2018	4,6	4,1	6,4	5,3
2019	3,7	3,0	3,7	5,1
2020	-3,0	-3,4	-2,9	-2,3
2020 (1)	-0,5	-0,4	-2,6	-0,5
2021 (1)	2,8	2,1	0,4	4,3
2019 I	2,9	1,9	3,5	4,8
II	4,5	2,6	10,4	7,6
III	4,3	4,5	0,3	4,2
IV	3,2	2,8	1,0	4,2
2020 I	2,4	1,6	-1,5	4,2
II	-9,3	-8,4	-6,8	-11,2
III	-4,4	-5,4	-1,9	-2,7
IV	-0,7	-1,4	-1,3	0,6
2021 I	-0,1	-0,1	-1,1	0,2
2020 urtarrila	2,9	2,0	3,5	4,6
otsaila	4,5	2,6	-1,8	8,6
martxoa	-0,1	0,2	-5,1	-0,1
apirila	-9,1	-6,3	-6,4	-14,4
maiatza	-11,1	-10,8	2,7	-12,9
ekaina	-8,0	-8,1	-13,2	-7,2
uztaila	-5,7	-6,7	-5,4	-3,4
abuztua	-4,2	-5,1	4,6	-3,3
iraila	-2,6	-3,3	-3,2	-1,1
urria	-2,6	-3,7	-6,7	-0,1
azaroa	-0,5	-0,5	-2,1	-0,3
abendua	0,2	-0,5	2,6	1,5
2021 urtarrila	0,0	0,5	-3,8	-0,5
otsaila	-3,4	-3,5	-2,7	-3,4
martxoa	3,1	2,4	2,5	4,4
apirila	12,4	9,3	5,8	19,1

(1) Erreferentziako hilera arte metatutako datuak

Urtearteko bariazio tasak ehunekotan